

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Neanderko kosako gajoa

NEANDER (ALEMANIA), 1856.

Düsseldorf hiritik gertu, Neander ibaiaren bailaran, Charles Darwinek *Espezieen Jatorria* idatzi baino hiru urte lehenago, harrobi bateko langileek giza arrasto batzuk topatu zituzten: garezurra, bi femur, eskuin besoko hiru hezur, ezker besoko beste bi, ezkerreko hezur iliakoaren zati bat, eskapularen eta saihtsen zatiak...

August Franz Mayer Bonneko Unibertsitateko irakasleak hartu zuen aurkitutakoa aztertzeke ardurara. Antzeko arrastoak 1829an Engisen (Belgika) eta 1848an Forbeko harrobian (Gibraltar) topatu zituzten, baina orduan ez zuten jatorria identifikatzea lortu. Une horretan, 1856an, Mayerrek aukera paregabea zeukan giza eboluzioaren atal garrantzitsua idazteko. Neanderthaleko gizakia munduari ezagutarazi zion aditu gisa sar zitekeen historian. Eta ederki sartu zuen hanka.

Teoria bitxia eraiki zuen hezur zati haien inguruan. Arrastoak Napoleoni segika Europa osoan ibili zen errusiar kosako batenak omen ziren. Heriotza urtea ere zehaztu zuen: 1814. Baita arrazoia ere: borrokan hil zen. Baina, nolatan zituen gizaki hark femurrak hain okertuta? Mayerren esanetan, errakitismoa zuelako. Eta bekaineko hezurak? Nola zen posible



Ezkerrean, Neanderthaleko gizakiaren itxuraren erreproduktzioa. Lerro hauen gainean espezie bereko gizakiaren hezurak. 1856an arrastoak aurkitu zituztenean, ordea, August Franz Mayerrek soldadu kosako baten arrastoak zirela esan zuen.

Napoleonen etsai hark halako arku supraziliarak izatea? Bada, hori ere errakitismoaren ondorioa zen; gaixotasunak eragiten zion mina zela-eta, kosako koitaduak bekainak asko zimurtzen zituen eta horregatik garatu zitzaizkion hainbeste hezur horiek. Eta nola zen posible soldadu hark, zaurituta, amildegi batera igotzea, kobazulo batean sartzea eta sarrera estaltzea, eta gorputza 60 zentimetroko sedimentu geruza baten azpian ehorztea? Galdera horri ez zion erantzun Bonneko irakasleak. Beste aditu batzuek bai, ordea. Neanderthal 1—halaxe bataiatu zuten Mayerren kosako errakitikoa—gizaki mota berri baten froga zen. ■

ARRASTOAK



DENIM hitza gero eta maizago irakur daiteke arropen etiketetan eta, oro har, moda kontuetan. Berez, oihak bakeroa esateko modu bat besterik ez da. Baina ez da hitz berria; jatorria XVII. mendean du. Garai hartan Frantziako Nimes hiria ehungintza gune garrantzitsua zen. Andre familiak gero hain ezagun egingo zen ehun urdina fabrikatzen zuen, eta hortik jaso zuen izena. *Denim* "de Nimes" ahoskatzeko modua baino ez da.

Jeans hitza orain arte *denim* baino gehiago erabili izan da, baina antzeko jatorria dute. Hasieran, belaontzien oihalak eta olanak egiteko erabiltzen zuten. Baina ehuna findu eta arropak egiten hasi ziren. Diotenez, indigoz tindatutako oihak hura erabiliz galtza pareak egiten lehenak italiarrak izan ziren, Genoan hain zuten. Frantsesek *Gênes* esaten diote Italiako hiriri eta halaxe esan zieten praka berriei. Denborak *Gênes jeans* bihurtu zuen.